# 1. Informazioa ematen duen erakundearen identifikazioa

## 1.1 Izen eta helbide soziala

EH BILDU ALDERDI-FEDERAZIOA (EH BILDU aurrerantzean) 2014ko ekainaren 25ean eratu zen Federazio gisa. Identifikazio fiskaleko zenbakia G71206700 da.

Federazioaren zerga-egoitzaren helbidea honako hau da:

Gaztelu plaza, 49 – 1
31001 – Iruña (Nafarroa)

Federazioaren asmoa eta helburua:
EUSKAL HERRIA BILDU alderdi politikoen Federazioa SORTU, ARALAR, ALTERNATIBA eta EUSKO ALKARTASUNA alderdiek osatzen dute, eta hogei foliotan landutako, alderdi bakoitzaren organo eskudunek onartutako eta Euskadiko Notarioen Elkargoko ALFREDO PEREZ AVILA notarioaren aurrean jendaurrean aurkeztutako Estatutuei jarraitzen die.
Federazioaren asmoa eta xedea adierazitako Estatutuetan dago zehatz-mehatz xehatuta.

## 1.2 KOALIZIOAREN OINARRIZKO EGITURA

FEDERAZIOAREN ORGANOAK
**HEGO EUSKAL HERRIKO MAHAI POLITIKOA**
Federazioaren koordinazio eta lege-ordezkaritzako organoa da.
**KOMUNIKAZIO MAHAIA**
Jarraibide politikoak komunikabideei eta iritzi publikoari helarazten dizkie.
**FINANTZA MAHAIA**
Federazioaren irizpide ekonomikoak ezarri eta kudeatu, kontabilitate-dokumentuak eraman eta urteko aurrekontuak prestatzen ditu.
Hiru organo horiek alderdi bakoitzeko ordezkari batez osatuta daude.
**ERAKUNDE MAHAIA**
Mahai Politikoan ezartzen diren jarraibideak gauzatu eta erakunde-maila guztiak koordinatzen ditu.
**LANTALDE SEKTORIALAK**
Mahai Politikoaren erabakiz, Federazioaren agenda politikoa sakondu eta garatzen dute.
**DIZIPLINA BATZORDEA**
Lau kidez osatuta dago, eta Estatutuak interpretatu, gatazketan bitartekaritza egin eta arbitratu eta planteatzen diren prozedurak ebazten ditu.
**BILTZAR NAZIONALA**
Lau urtean behin biltzen da.

## 1.3 Urteko kontuetan txertatutako kontabilitateak

8/2007 Lege Organikoaren 14. artikuluko bosgarren zenbakiari jarraikiz, Federazio bat denez gero urteko kontuak era bateratuan formulatu eta aurkeztu behar dira.
Federazioak ez ditu era bateratuan aurkeztu 2016ko urteko kontuak.

## 1.4 Lotutako aldeak

Ez dago Federazioari lotutako FUNDAZIORIK eta GAZTE-ERAKUNDERIK, eta Federazioak ez du partaidetzarik ezein sozietatetan, urteko kontu hauek lantzeko arauen 11. puntuan deskribatutakoari jarraikiz.

### 1.5 Hauteskunde-prozesuak

Urteko kontuek hartzen duten aldian, Federazioak 2016ko ekainaren 26an Gorteetarako eta Senaturako egindako hauteskundeetan parte hartu du, eta bi eserleku lortu ditu.
Halaber, 2016ko irailaren 25ean Eusko Legebiltzarrerako egindako hauteskundeetan parte hartu du, eta 18 eserleku lortu ditu.

### 1.6 Urteko kontuek hartzen duten aldia

Ekitaldi ekonomikoa 2016/01/01ean hasi eta 2916/12/31n amaitzen da.

## 2. Urteko kontuak aurkezteko oinarriak

### 2.1 Irudi leiala

a) Urteko kontuak Federazioaren kontabilitate-erregistroetan oinarrituta prestatu dira, eta Federazioaren Zuzendaritzak kontabilitate-arloan indarrean dauden lege-xedapenak aplikatu ditu, Federazioaren ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen irudi leiala islatzeko.

b) Ez dago aparteko ezein arrazoirik irudi leiala agertzeko garaian kontabilitate-arloko lege-xedapenen bat bete gabe utzi behar izateko.

c) Era berean, ez dago txertatu beharreko ezein informazio osagarririk, kontabilitate-arloko lege-xedapenak eta oro har onartuta dauden kontabilitate-printzipioak nahikoak baitira Koalizioaren irudi leiala agertzeko.

### 2.2 Aplikatu diren nahitaezkoak ez diren kontabilitate-printzipioak

Irudi leiala agertzeko, ez da egon nahitaezko kontabilitate-printzipioren baten aplikaziorik eza justifikatzen duen aparteko arrazoirik.

Era berean, ez da aplikatu nahitaezkoa ez den bestelako kontabilitate-printzipiorik irudi leiala agertzeko.

### 2.3 Zenbatespenetan izandako ziurgabetasunaren balioespenaren alderdi kritikoak eta ziurgabetasunaren arrazoiak

a) Ez dago aldaketa esanguratsurik eta aurtengo ekitaldian eragina duenik ezein kontabilitate-zenbatespenetan.

b) Federazioaren etorkizunari dagokionez, funtsean hauteskunde-izaera duenez gero, haren bilakaera parte hartzen duen hauteskundeetan lortutako emaitzari hertsiki lotuta egongo da.

### 2.4 Informazioaren konparazioa

a) Erantsitako finantzen egoera-orriek aurtengo (2016) ekitaldiari dagozkion kontabilitate-saldoak jasotzen dituzte, eta TALDE POLITIKOETARA EGOKITUTAKO KONTABILITATE-PLANEAN eta, hala badagokio, Kontabilitate Plan Orokorrean jasotako printzipioei jarraikiz prestatu dira.

b) Ez dago aurtengo ekitaldiko urteko kontuen eta aurreko urtekoen arteko konparazioa eragozten duen arrazoirik.

### 2.5 Partiden taldekatzea

Ez dago taldekatu den partidarik.

### 2.6 Hainbat partidatan bildutako elementuak

Ekitaldia itxi denean, Federazioak ez dauka partida batean baino gehiagotan jasota dagoen ondare-elementurik Balantzean, Galdu-Irabazien Kontuan eta Ondare Garbiko Aldaketen egoera-orrian.

### 2.7 Kontabilitate-irizpideetan izandako aldaketak

Erantsitako kontuei dagokien ekitaldian, ez da irizpide-aldaketarik gertatu aurrekoen aldean.

### 2.8 Okerren zuzenketa

Erantsitako kontuei dagokien ekitaldian, ez da aurreko ekitaldietako ezein okerren zuzenketarik egin.

## 3 Erregistro- eta balioespen-arauak

### 3.1 Ibilgetu ukiezina

Balantzean agertzen diren Federazioaren ondasunak eskuratze-kostuan balioetsita daude. Etorkizunean eskuratzen diren ondasunek balioespen-arau berari jarraituko diote.

Amortizaziorako urteko hornidura metodo linealaren bidez kalkulatzen da, merkataritza- eta zerga-eremuan legez onar daitezkeen amortizazio-ehunekoak aplikatuta.

Itxitako azken ekitaldiko galdu-irabazien konturako kargua –ibilgetu ukiezinaren amortizazio gisa– 0 € izan zen.

### 3.2 Ibilgetu materiala

Ibilgetu materiala eskuratze-kostuan agertzen da, eta erosketa-faktura, garraio-gastuak, asegurua, aduanak (baldin badaude), zergak eta instalatzeko eta abian jartzeko kostuak sartzen dira bertan, finantza-gastuak kontuan hartu gabe. Zenbateko kontingentearen egungo balioaren zenbatespenik onena gorabehera, jardueraren garapenari lotutako magnitudeen araberako ordainketa kontingenteak egiten diren heinean kontabilizatzen dira gastu gisa galdu-irabazien kontuan.

Ibilgetu materialeko ondasunen etorkizuneko eskuratzeen kontura emandako zenbatekoak aktiboan erregistratzen dira, eta aurrerakinari lotutako aktiboaren balioa eguneratzean sortzen diren doikuntzak diru-sarrera finantzarioen aitorpena dakarte, sortzen diren heinean. Horretarako, hasieran dagoen hornitzailearen interes-tasa inkrementala erabiltzen da, hau da, hornitzailea jasotako zenbatekoaren emaitzazkoen baldintza berdinetan finantzatu ahal izateko interes-tasa, eta ez da aldatuko ondorengo ekitaldietan. Gehienez ere urtebeteko muga-eguna duten eta finantza-ondorio esanguratsurik ez duten aurrerakinen kasuan, ez da beharrezkoa izango ezein eguneratze mota egitea.

Bizitza baliagarriaren zabalkuntzarik ez dakarten konponketak eta mantentze-gastuak galdu-irabazien kontuan kargatzen dira zuzenean. Ondasunaren iraupena handiagoa izatea ekarriko duten zabalkuntza- eta hobekuntza-kostuak ondasunaren balio handiago gisa kapitalizatzen dira.

Hasierako aitorpenaren ondoren, hornidurari lotutako finantza-deskontuaren itzulketa kontabilizatzen da galdu-irabazien kontuan, eta pasiboaren balioa hasierako aitorpenean edo azken itzulketaren egunean aplikatutako interes-tasari jarraiki doitzen da. Bestalde, ibilgetu materialaren hasierako balioespenak aldaketak izan ditzake deskontuaren itzulketa aitortu ondorengo desegite- eta birgaitze-kostuei lotutako horniduraren zenbatekoa aldatzen duten kontabilitate-zenbatespenetan izandako aldaketen ondorioz. Aldaketa horien arrazoiak honako hauek izan daitezke:

a) Desegiteari edo birgaitzeari lotutako obligazioa kitatzeko zenbatetsitako eskudiru-fluxuen zenbatekoan edo egutegian gertatutako aldaketa bat.

b) Sozietateak horniduraren egungo balioa finkatzeko erabilitako deskontu-tasa arriskurik gabeko interes-tasa da, eskudiru-fluxuak zenbatestean obligazioaren betetzeari lotutako arriskua kontuan hartu ez denean izan ezik.

Amortizaziorako urteko hornidura metodo linealaren bidez kalkulatzen da ondasunen bizitza erabilgarri zenbatetsian oinarrituta eta merkataritza- eta zerga-eremuan legez onar daitezkeen amortizazio-ehunekoak aplikatuta.

Eskuratutako elementu ibilgetua erabilitako ondasun bat denean, tauletan xehatutako ehunekoaren bikoitza erabilita amortizatuko da.

Lur eta orubeei dagokienez, ez dira amortizatzen, Kontabilitate Plan Orokorrari jarraikiz.

Itxitako azken ekitaldiko galdu-irabazien konturako kargua –ibilgetu materialaren amortizazio gisa– 5.071,77 € izan zen (0,00 € aurreko ekitaldian).

Finantza-errentamenduen kasuan, errentan emandako aktiboen kostua kontratuaren xede den ondasunaren izaeraren arabera erregistratzen da egoera-balantzean, eta, aldi berean, zenbateko bera duen pasibo bat ere bai. Zenbateko hori, errentan emandako ondasunaren balio arrazoigarriaren eta adostutako gutxieneko zenbatekoek errentamenduaren hasieran duten egungo balioaren (erosteko aukera barne) arteko txikiena izango da, horren egikaritzeari buruzko zalantzarik ez dagoenean. Kalkulu horretan ez dira sartuko izaera kontingenteko kuotak, zerbitzuen kostua eta errentariak jasanarazi ditzakeen zergak. Kontratuaren guztizko finantza-karga hura sortzen den ekitaldiko galdu-irabazien kontuari egozten zaio, interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuz. Eragiketa mota horiengatik erregistratutako aktiboak aktibo materialen multzoari aplikatutako antzeko irizpideekin amortizatzen dira, haien izaera kontuan izanik.

### 3.3 Ondasun higiezinetan egindako inbertsioak

Federazioak ez du inbertsiorik egin ondasun higiezinetan ekitaldi osoan.

### 3.4 Ondare historiko-artistikoa osatzen duten ondasunak

Federazioak ez du horrelako ondasunik.

### 3.5 Errentamenduak

Ekitaldi honetan ez da finantza-errentamendurik egin.

### 3.6 Trukaketak

Ekitaldi honetan ez da trukaketarik egin.

### 3.7 Finantza-inbertsioak

Federazioaren epe luzerako finantza-inbertsioak alokatutako lokaletan jarritako fidantzak dira, eta 2016. urtean 10.620,00 eurora iritsi dira.

### 3.8 Kredituak eta zordunketak

Federazioak EH BILDU Koalizio gisa lotutako taldeekin zituen kredituak eta zordunketak emaitzetan aplikatu ditu, eta galeretan txertatu du 380.000,00 euroko zenbatekoa.

### 3.9 Izakinak

Izakinetan bildutako ondasunak eta zerbitzuak eskuratze-prezioaren arabera balioetsita daude. Izakinen zenbatekoa 0,00 € izan da ekitaldiaren amaieran.

### 3.10 Federazioaren jardueraren zerga-kontsiderazioa

Federazioak ez du egin tributazioren bat dakarren ezein jarduerarik. Hortaz, ez du egin BEZaren aitorpenik eta Sozietateen gaineko Zergari lotutako ezein aitorpenik.

### 3.11 Diru-sarrerak eta gastuak

Diru-sarrerak eta gastuak erregistratzean, sortzapen-irizpidea hartu da kontuan, hau da, korronte erreala, diru-sarrera eta gastu horien ondoriozko moneta- edo finantza-korrontea gertatzen den unea edozein izanik ere.

Alderdi politikoen finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoan eta hauteskunde-araudian ezarritakoari jarraikiz, Koalizio politikoak bereiz erregistratuko ditu diru-sarrera arruntak, hauteskundeetako diru-sarrerak eta hauteskunde-gastu arruntak, eta, aldi berean, adierazitako gastuen artean, hauteskunde-publizitatearen bidalketek eragindakoak eta adierazitako hauteskunde-araudian aurreikusita dauden muga batzuei lotutakoak bereiziko dira.

Jatorri publikoa duten diru-sarrera arruntak eta hauteskundeei lotutakoak honako hauek izan dira:

Funtzionamendu-gastuei erantzuteko diru-laguntza (Eusko Jaurlaritza) 256.858.18 €
Gasteizko legebiltzar-taldeentzako diru-laguntza 162.724.26 €
Funtzionamendu-gastuetarako diru-laguntza (Espainiako Parlamentua) 410.735,33 €
Erakunde-taldeen ekarpenak 3547491,51 €
Ekitaldian egotzitako segurtasun-gastuak 17.629,70 €
Hauteskunde-emaitzei dagozkien diru-laguntzak 1.311.332,32 €
Hauteskunde-bidalketetarako diru-laguntzak 602.848.50 €
Jatorri publikoa, guztira 6.309.619,70

Jatorri pribatua duten diru-sarrera arruntak eta hauteskundeei lotutakoak honako hauek izan dira:
Kargu publikoen ekarpenak 1.184.691,79 €
Lotutako aldeen ekarpenak 955.692,34 €
Hauteskunde-ekarpen propioak 1.389.000,00 €
Jatorri pribatua, guztira 3.529.384,13 €

DIRU-SARRERAK, GUZTIRA 9.839.003,83 €

### 3.12 Hornidurak eta kontingentziak

Arriskuetarako Hornidura Funtsa 0,00 euro da (2015eko ekitaldian ere 0,00 euro izan zen).

Une bakoitzean eskuragarri dagoen informazioari jarraikiz, hornidurak ekitaldia ixten den egunean balioetsiko dira, egungo balioan.

### 3.13 Langile-gastuak erregistratzeko erabilitako irizpideak

Langile-gastuak erregistratzeko erabilitako irizpidea talde politikoetara egokitutako Kontabilitate Planaren erregistro- eta balioespen-arauetan estipulatutakoa izan da.

### 3.14 Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak.

Diru-laguntza ez-finalistak eta moneta-izaerako dohaintzak eta legatuak emaitzen kontuan kontabilizatzen dira zuzenean. Irizpide horri hauteskunde-gastuetarako diru-laguntzek, funtzionamendu-gastuetarako urteko diru-laguntzek eta ezohiko diru-laguntzek jarraitzen diote bereziki.

Gainerako diru-laguntzak PASIBO gisa kontabilizatzen dira hasieran.

### 3.15 Lotutako aldeen arteko transakzioetan erabilitako irizpideak.

Lotutako erakundeen arteko transakzioetan erabilitako balioespen-irizpidea, hala badagokio, arrazoizko balioa izan da.

## 4 Aktibo ibilgetua

### 4.1 Mugimenduaren azterketa

Ibilgetu materialaren eta ukiezinaren kontuen eta ondasun higiezinetan egindako inbertsioen mugimendua honako hau izan da 2016an:

| | Hasierako saldoa | Sarrerak | Irteerak | Amaierako saldoa |
|---|---|---|---|---|
| Ibilgetu ukiezina | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| Ibilgetu materiala | 17.191,90 | 6.836,55 | 0,00 | 24008.45 |
| Ondasun higiezinetako inbertsioak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| Aribideko ibilgetu materiala | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| **IBILGETUA, GUZTIRA:** | 17.191,90 | 6.836,558 | 0,00 | 24.008,45 |

| | Hasierako saldoa | Sarrerak | Irteerak | Amaierako saldoa |
|---|---|---|---|---|
| Ibilgetu ukiezinaren amortizazio metatua | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| Ibilgetu materialaren | 0,00 | 5.071,77 | 0,00 | 5.071,77 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| amortizazio metatua | | | | |
| Ondasun higiezinetako inbertsioen amortizazio metatua | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| **AMORTIZAZIOA, GUZTIRA:** | 0,00 | 5.071,77 | 0,00 | 5.071,77 |

| | Hasierako saldoa | Sarrerak | Irteerak | Amaierako saldoa |
|---|---|---|---|---|
| Ibilgetu ukiezinaren kontabilitate-balio garbia | 0,00 | ----- | ----- | 0,00 |
| Ibilgetu materialaren kontabilitate-balio garbia | 17.171,90 | ----- | ----- | 18.936,68 |
| Ondasun higiezinetako inbertsioen kontabilitate-balio garbia | 0,00 | ----- | ----- | 0,00 |
| **KBG-A, GUZTIRA:** | 17.171,90 | ----- | ----- | 18.936,68 |

Ibilgetu materialaren eta ukiezinaren kontuen eta ondasun higiezinetan egindako inbertsioen mugimendua honako hau izan zen 2015ean:

| | Hasierako saldoa | Sarrerak | Irteerak | Amaierako saldoa |
|---|---|---|---|---|
| Ibilgetu ukiezina | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| Ibilgetu materiala | 0,00 | 17.171,90 | 0,00 | 17.171,90 |
| Ondasun higiezinetako inbertsioak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| Aribideko ibilgetu materiala | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| **IBILGETUA, GUZTIRA:** | 0,00 | 17.171,90 | 0,00 | 17.171,90 |

| | Hasierako saldoa | Sarrerak | Irteerak | Amaierako saldoa |
|---|---|---|---|---|
| Ibilgetu ukiezinaren amortizazio metatua | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| Ibilgetu materialaren amortizazio metatua | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| Ondasun higiezinetako inbertsioen amortizazio | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| metatua | | | | |
| **AMORTIZAZIOA, GUZTIRA:** | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |

| | Hasierako saldoa | Sarrerak | Irteerak | Amaierako saldoa |
|---|---|---|---|---|
| Ibilgetu ukiezinaren kontabilitate-balio garbia | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| Ibilgetu materialaren kontabilitate-balio garbia | 0,00 | ----- | ----- | 17.171,90 |
| Ondasun higiezinetako inbertsioen kontabilitate-balio garbia | 0,00 | ----- | ----- | 0,00 |
| **KBG-A, GUZTIRA:** | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 17.171,90 |

### 4.2 Honako hauei buruzko informazioa:

a) Amortizazioak
Amortizaziorako urteko hornidura metodo linealaren bidez kalkulatzen da ondasunen bizitza erabilgarri zenbatetsian oinarrituta eta legez onar daitezkeen amortizazio-ehunekoak aplikatuta.

b) Finantza-errentamenduak
Federazioak ez du finantza-errentamendurik egin ekitaldian.

## 5 Ondare historikoaren ondasunak

Federazioak ez du izaera hori duen ondasunik, eta, beraz, ez du atal honetan aipatu beharreko errebalorizazio eta informaziorik.

## 6 Finantza-inbertsioak

### 6.1 Balioak

| Motak / Kategoriak | EPE LUZERAKO FINANTZA-TRESNAK | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Ondare-tresnak | | Zorra adierazten duten balioak | | Kredituak, deribatuak eta beste batzuk | |
| | 2016 | 2015 | 2016 | 2015 | 2016 | 2015 |
| Arrazoizko balioko aktiboak, galdu-irabazietan aldaketak izan dituztenak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| Muga-egunera | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| arteko inbertsioak | | | | | | |
| Kobratu beharreko maileguak eta partidak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| Saltzeko eskuragarri dauden aktiboak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| Estalduraren deribatuak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| **Guztira** | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |

| Motak / Kategoriak | EPE LABURRERAKO FINANTZA-TRESNAK | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Ondare-tresnak | | Zorra adierazten duten balioak | | Kredituak, deribatuak eta beste batzuk | |
| | 2016 | 2015 | 2016 | 2015 | 2016 | 2015 |
| Arrazoizko balioko aktiboak, galdu-irabazietan aldaketak izan dituztenak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| Muga-egunera arteko inbertsioak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| Kobratu beharreko maileguak eta partidak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 2.198.570,47 | 1.933.595,76 |
| Saltzeko eskuragarri dauden aktiboak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| Estalduraren deribatuak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| **Guztira** | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 2.198.570,47 | 1.933.595,76 |

| Motak / Kategoriak | **GUZTIRA** Epe luze eta laburrerako tresnak | |
|---|---|---|
| | 2016 | 2015 |
| Arrazoizko balioko aktiboak, galdu-irabazietan aldaketak izan dituztenak | 0,00 € | 0,00 € |
| Muga-egunera arteko inbertsioak | 0,00 € | 0,00 € |
| Kobratu beharreko maileguak eta partidak | 2.198.570,47€ | 1.933.595,76 |
| Saltzeko eskuragarri dauden aktiboak | 0,00 € | 0,00 € |

| | | |
|---|---|---|
| Estalduraren deribatuak | 0,00 € | 0,00 € |
| **Guztira** | 2.198.570,47€ | 1.933.595,76 |

### 6.2 Zuzenketa-kontuen mugimenduaren azterketa

Finantza-aktiboen kreditu-arriskuak eragindako narriaduragatiko galerak adierazten dituzten zuzenketa-kontuen mugimenduak honako hauek izan dira:

| Zuzenketa-kontuak | Hasierako saldoa | Hornidura | Itzulketa | Amaierako saldoa |
|---|---|---|---|---|
| Kontuak: 490–493 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| Kontuak: 293-294-296-297 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| Kontuak: 295-298 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| Kontuak: 593-594-596-597 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| Kontuak: 595-598 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| **GUZTIRA:** | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |

Aurreko ekitaldian (2015eko ekitaldian), honako hauek izan ziren:

| Zuzenketa-kontuak | Hasierako saldoa | Hornidura | Itzulketa | Amaierako saldoa |
|---|---|---|---|---|
| Kontuak: 490–493 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| Kontuak: 293-294-296-297 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| Kontuak: 295-298 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| Kontuak: 593-594-596-597 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| Kontuak: 595-598 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| **GUZTIRA:** | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |

# 7 Zorrak

### 7.1 Zorren muga-eguna 2016ko ekitaldiaren itxieran

| | Muga-egunak (urteak) | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **1** | **2** | **3** | **4** | **5** | **>5** | **Guztira** |
| Kreditu- | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| erakundeekiko zorrak | | | | | | | |
| Finantza-errentamenduagatiko hartzekodunak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| Beste zor batzuk | 3.460,34 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 3.460,34 |
| Lotutako aldeekiko zorrak | 50.000,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 50.000,00 |
| Merkataritza-hartzekodun ez-arruntak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| Hornitzaileak | 15.477,15 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 15.477,15 |
| Beste hartzekodun batzuk | 165.511,78 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 165.511,78 |
| Ezaugarri bereziak dituzten zorrak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| **GUZTIRA** | 234.449,27 € | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 234.449,27 € |

Berme errealeko zorren zenbatekoa 0,00 € da. Zor horiek, beren izaera juridikoa dela eta, dagokien erregistro publikoan inskribatuta daude.

### 7.2 Ekitaldiaren itxieran ordaintzeko geratzen diren maileguak

Federazioak ez du ordaindu gabe utzi ezein maileguren edo beste antzeko ezein eragiketaren tronkoa eta interesak.

## 8 Afiliatuak, atxikiak eta jarraitzaileak

Ez dago Federazioan zuzenean afiliatutako pertsonarik. Izan ere, EH BILDUko kide diren pertsonak Federazioa osatzen duten eta Alderdi Politikoen Erregistroan inskribatuta dauden alderdi politikoetan afiliatuta dauden heinean izango dira EH BILDUko kide.

## 9 Ondare garbia

| **ONDARE GARBIA** | **1.993.677,88€** |
|---|---|
| Aurreko ekitaldietako soberakina | 172.717,68 € |
| Ekitaldiko emaitza | 2.800.550,11 € |
| Federazioko alderdien arteko banaketak | -979.589,91 € |

## 10 Zerga-egoera

### 10.1 Zerga-araubide aplikagarria.

Foru Arauaren arabera, partzialki salbuetsita dagoen sozietatea da, eta ekitaldian ez du ezein jarduerarik egin bere fundazio-xedetik kanpo.

### 10.2 Sozietateen gaineko Zergari egotz dakiokeen diru-sarrera eta gastuen zatia

Federazioak bere fundazio-xedetik kanpoko jarduerarik egin ez duenez gero, bere diru-sarreren ezein zati ez dago lotuta Sozietateen gaineko Zergari.

### 10.3 Zerga-karga aurreratua eta zerga-karga geroratuaren zenbatespena

Ez dago horri buruzko informaziorik

### 10.4 Talde politikoak aplikatutako zerga-onurak.

Federazioak ez du aplikatu ezein zerga-onurarik

### 10.4 Konpentsatzeko geratzen diren oinarri negatiboak.

Federazioak ez dauka konpentsatzeko geratzen den oinarri negatiborik.

### 10.5 Funtsezko beste zirkunstantzia batzuk

Ez dago informaziorik

### 10.6 Beste zerga batzuk

Federazioa ez dago beste ezein zergari lotuta.
Dena dela, hala badagokio, PFEZa ordainduko du bere jardueraren ondorioz profesionalekin harremanak ezartzen dituenean.

## 11 Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak

### 11.1 Diru-laguntza, dohaintza eta legatuen zenbatekoa, ezaugarriak eta izaera.

| **Emaitzen Kontuari egotzitako diru-laguntzak** | **2016** |
|---|---|
| Funtzionamendu-gastuei erantzuteko diru-laguntza (Eusko Jaurlaritza, Espainiako Gorteak eta talde parlamentarioak) | 830.317,77 € |
| Udal-taldeen, batzarren eta abarren ekarpenak | 3.547.491,51 € |
| **GUZTIRA** | **4.395.438,98 €** |

## 12 Konfiskatutako ondasun eta eskubideen itzultzea edo konpentsazioa (43/1998 Legea)

Federazioari ez zaio aplikatu 43/1998 Legean aurreikusitako zirkunstantzia hori.

## 13 Hauteskunde-jarduerak

Federazioak ez du parte hartu ekitaldi honetan eta aurrekoetan izandako hauteskundeetarako beste ezein koaliziotan, eta, beraz, ez dauka horri buruzko informaziorik.

## 14 Beste informazio batzuk

1. Koalizioak ez dauka Balantzean agertzen den eta MEMORIA honetan adierazi ez den informazio esanguratsurik gaineratzeko.
2. Ekitaldiaren barruan, ez da aldaketarik izan Koalizioaren zuzendaritza-organoan.

**3. Emaitzen banaketa**

Koalizioko administratzaileek ekitaldi honetako emaitzen honako banaketa hau proposatu diote Koalizioaren zuzendaritza-organoari:

| Banaketa-oinarria | 2016 | 2015 |
|---|---|---|
| Ekitaldiko soberakina | 2.800.550,11 € | 627.790.81 € |
| Geldikina | 0,00 € | 0,00 € |
| Borondatezko erreserbak | 0,00 € | 0,00 € |
| Erabilera libreko beste erreserba batzuk | 0,00 € | 0,00 € |
| ***Banatu beharreko guztizkoa:*** | 2.800.550,11 € | 627.790.81 € |

| Emaitzaren banaketa | 2016 | 2015 |
|---|---|---|
| Soberakin positiboak | 1.820.960,20 € | 95.341,35 € |
| Borondatezko erreserbetara | 0,00 € | 0,00 € |
| Beste erreserba/soberakinetara | 0,00 | 0,00 € |
| Aurreko ekitaldietako galerak konpentsatzera | 0,00 € | 0,00 € |
| Geldikinera | 0,00 € | 0,00 € |
| Alderdien banaketa | 979.589,91 € | 532.449,46 € |

| | | |
|---|---|---|
| Kontseiluaren ordainsarietara | 0,00 € | 0,00 € |
| Ekitaldiko emaitza negatiboetara | 0,00 € | 0,00 € |
| Merkataritza-funtsaren hornidurara | 0,00 € | 0,00 € |
| ***Banaketa-proposamena, guztira:*** | 2.800.550,11 € | 627.790,81 € |

Ekitaldiko emaitzaren kontura emandako dibidendua 979.589,91 euro izan da.

| | |
|---|---|
| **ALTERNATIBA** | **7.420,00** € |
| **SORTU** | **488.268,55** € |
| **EUSKO ALKARTASUNA** | **464,401,36** € |
| **ARALAR** | **19.500,00** € |

2015eko ekitaldian, berriz, 532.449,46 euro izan zen.

## 16 Eskudiru-fluxuen egoera-orria

**A) KUDEAKETA-JARDUERAREN ESKUDIRU-FLUXUAK**

**A-1) HAUTESKUNDEETATIK KANPOKO JARDUERAREN ESKUDIRU-FLUXUAK**

**1. Hauteskundeetatik kanpoko jardueraren ekitaldiko zergen aurreko emaitza (aurrezpena edo desaurrezpena)**

**2. Emaitzaren doikuntzak.**

- a) Ibilgetuaren amortizazioa (+)
- b) Narriaduragatiko balioespen-zuzenketak (+/-)
- c) Horniduren aldaketa (+/-)
- d) Diru-laguntzen, dohaintzen eta legatuen egozpena (-)
- e) Ekitaldiko emaitzei egokitzeko ondasun higiezinak eta ondare-edukiko eskubideak
- f) Ibilgetuaren bajen eta besterentzeen ondoriozko emaitzak (+/-)
- g) Finantza-tresnen bajen eta besterentzeen ondoriozko emaitzak (+/-)
- h) Diru-sarrera finantzarioak (-)
- i) Finantza-gastuak (+)
- j) Kanbio-diferentziak (+/-)
- k) Beste diru-sarrera eta gastu batzuk (-/+)

3. Kapital korrontean izandako aldaketak

- **a)** Izakinak (+/-)
- **b)** Zordunak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk (+/-)
- **c)** Beste aktibo korronte batzuk (+/-)
- **d)** Hartzekodunak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk (+/-)
- **e)** Beste pasibo korronte batzuk (+/-)
- **f)** Beste aktibo eta pasibo ez-korronte batzuk (+/-)

**4. Hauteskundeetatik kanpoko jardueraren beste eskudiru-fluxu batzuk**

- a) Interesen ordainketak (-)
- b) Dibidenduen kobrantzak (+)
- c) Interesen kobrantzak (+)
- d) Mozkinen gaineko zergagatiko kobrantzak (ordainketak)
- e) Beste ordainketa (kobrantza) batzuk (-/+)

**5. Hauteskundeetatik kanpoko jardueraren eskudiru-fluxuak (+/-1+/-2+/-3+/- 4)**

**A2) HAUTESKUNDE-JARDUERAREN ESKUDIRU-FLUXUAK**

**6. Hauteskunde-jardueraren ekitaldiko zergen aurreko emaitza (aurrezpena edo desaurrezpena)**

**7. Emaitzaren doikuntzak**

- a) Diru-laguntzen egozpena (-)
- b) Finantza-gastuak (+)
- c) Diru-sarrera finantzarioak (-)

**8. Kapital korrontean izandako aldaketak**

- a) Zordunak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk (+/-)
- b) Hartzekodunak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk (+/-)

**9. Hauteskunde-jardueraren beste eskudiru-fluxu batzuk**

- a) Interesen ordainketa (-)
- b) Interesen kobrantza (+)
- c) Beste ordainketa (kobrantza) batzuk (-/+)

**10. Hauteskunde-jardueraren eskudiru-fluxuak (+/-6 + /-7+/-8+/-9)**

**B) INBERTSIO-JARDUEREN ESKUDIRU-FLUXUAK**

**11. Inbertsioengatiko ordainketak (-)**

- a) Lotutako aldeak
- b) Ibilgetu ukiezina
- c) Ibilgetu materiala
- d) Ondare historikoaren ondasunak

| 2016 | 2015 |
|---|---|
| 1.473.844,15 | 2.001.558,02 |
| 2.800.550,11 | 627.790,81 |
| 4.690,03 | 1.220,51 |
| 5.071,77 | 0,00 |
| -309,90 | -152,42 |
| -71.84 | 1.372,93 |
| -1331.777,73 | 1.373.767,21 |
| -20704,23 | |
| -1.049.070,99 | 909.344,16 |
| -262.002,99 | 462.610,59 |
| 381.74 | -1220.51 |
| 71.84 | -1.372,93 |
| 399,90 | 152,42 |
| 1.473.844,15 | 2.001.558,02 |
| 808.589,81 | -858.681,60 |
| -2.309.078,03 | -3.332.763,39 |
| -6.836,55 | -17.171,90 |
| -2.302.241,48 | -3.315.591,49 |

e) Ondasun higiezinetan egindako inbertsioak
f) Beste aktibo batzuk

**12. Desinbertsioengatiko kobrantzak (+)**
- a) Lotutako aldeak
- b) Ibilgetu ukiezina
- c) Ibilgetu materiala
- d) Ondare historikoaren ondasunak
- e) Ondasun higiezinetan egindako inbertsioak
- f) Beste aktibo batzuk

**13. Inbertsio-jardueren eskudiru-fluxuak (12-11)**

**C) FINANTZAKETA-JARDUEREN ESKUDIRU-FLUXUAK**

**C-1) HAUTESKUNDEETATIK KANPOKO FINANTZAKETA-JARDUEREN ESKUDIRU-FLUXUAK**

**14. Ondare-tresnengatiko kobrantzak eta ordainketak**
- a) Diru-laguntzak (+)
- b) Jasotako diru-laguntzak eta legatuak (+)
- c) Ondasun higiezinen itzulketa (+)

**15. Finantza-pasiboko tresnengatiko kobrantzak eta ordainketak**
- a) Jaulkipena
  - **1.** Kreditu-erakundeekiko zorrak (+)
  - **2.** Lotutako aldeekiko zorrak (+)
  - **3.** Beste zor batzuk (+)
- b) Honako hauen itzulketa eta amortizazioa:
  - **1.** Kreditu-erakundeekiko zorrak (-).
  - **2.** Lotutako aldeekiko zorrak (-)
  - **3.** Beste zor batzuk (-).

**16. Hauteskundeetatik kanpoko finantzaketa-jardueren eskudiru-fluxuak (+/-14+/-15)**

**C-2) HAUTESKUNDEETAKO FINANTZAKETA-JARDUEREN ESKUDIRU-FLUXUAK**

**17. Ondare-eragiketengatiko kobrantzak eta ordainketak**
- a) Diru-laguntzak (+)
- b) Jasotako diru-laguntzak eta legatuak (+)

**18. Finantza-pasiboko tresnengatiko kobrantzak eta ordainketak**
- a) Jaulkipena
  - **1.** Kreditu-erakundeekiko zorrak (+)
  - **2.** Lotutako aldeekiko zorrak (+)
  - **3.** Beste zor batzuk (+)
- b) Honako hauen itzulketa eta amortizazioa:
  - **1.** Kreditu-erakundeekiko zorrak (-).
  - **2.** Lotutako aldeekiko zorrak (-)
  - **3.** Beste zor batzuk (-).

**19. Hauteskundeetako finantzaketa-jardueren eskudiru-fluxuak (+/-17+/-18)**

**D) Kanbio-tasen aldaketen ondorioa**

**E) ESKUDIRUAREN EDO BALIOKIDEEN GEHIKUNTZA/MURRIZKETA GARBIA ( + /-5 + /-10 + /-11 + /-16 + /- 19 + /- D)**

Ekitaldiaren hasierako eskudirua edo baliokideak

Ekitaldiaren amaierako eskudirua edo baliokideak

| 200X | 200X-1 |
|---|---|
| 3.117.667,97 | 2.474.081,79 |
| 3.117.667,84 | 2.474.081,79 |
| 808.589,81 | -858.681,60 |
| 2.282.433,96 | 1.142.876,42 |
| 662.430,22 | 44.205,54 |
| 783.022,44 | 662.430,22 |